


# DEBA



Areizaga: Una ilusión, un desencanto  
Atxurrekin solasean  
Kilometroak 86  
Habla José Ignacio Urbieta

udaberria  
1986

## AURKIBIDEA - INDICE

Areizaga, ilusiotik desenkatura . . . . .	1
Agurra. . . . .	3
Atxurrekin solasean, <i>Jose Mari Altzibar - Joseba Eskudero</i> . . . . .	4
Kilometroak 86, <i>Alberto Gorriteberea</i> . . . . .	8
Debako Kilometroari, <i>Agerretxetik Lukasek</i> . . . . .	12
«Ikastola gehiago ta obeak...», <i>J. M. Altzibar</i> . . . . .	13
Apuntes sobre Educación, Compensatoria, <i>Joxean Egaña</i> . . . . .	16
Alumnos de la Ikastola escriben al Alcalde, . . . . .	18
José Ignacio Urbieta, <i>Félix Irigoien</i> . . . . .	21
Obervaciones sobre formas verbales de Deva, <i>Pedro de Yrizar</i> . . . . .	27
Cuestiones planteadas a los partidos políticos, . . . . .	29
A vueltas von el paro, <i>J. M. Idiabez</i> . . . . .	34
Alkoholaritza, <i>Julio Urkaregi</i> . . . . .	36
Apología audiovisual de la chatarra, <i>Rafael Castellano</i> . . . . .	41
El vínculo de Arrona (Arroacoa), <i>Roque Aldabaldetrecu</i> . . . . .	44
Teodosio Goni'ko eta Aralarko Illemosketak, <i>Anes Arrinda</i> . . . . .	47
Ai! . . . . .	52
10 Arau Praktiko euskaldunok gure euskubideak mantentzeko, <i>E.H.E. Taldea</i> . . . . .	53
El Cine Forum de Mutriku, <i>Mutrikuko Zine-Forum Taldea</i> . . . . .	54
Sueños de plomo, <i>Rafael Bravo</i> . . . . .	56
El foso generacional tiene dos orillas, <i>Itziar</i> . . . . .	59
Amaren oroipenez, <i>Joseba Zulaika</i> . . . . .	60
II Literatur lehiaketa euskaraz . . . . .	61
Chistes y contactos . . . . .	62

# AREIZAGA, Ilusiotik desenkantura



**I**LUSIOA Otsailaren bukdian sortu zen, alde bate-Patrimonio propioa osatzeko Testamentuaren eragozpenak eta bestetik Ostolaza etxearen mugatasun Fisikoek konponduta ziruditenean, Areizaga etxeaz jabetzeaz, berau Kultur Etxea bihurtuz. Hasieran eta etxearen egoera eta salmenta baldintzak ikusirik, Udalarekiko bilera batzuk aurrera eramane genituen, geure asmo eta xedeak azalduz. Kultur Elkarteak etxaldea erosteko prest zegoen eta Udalarik Kultur Etxearen sortzea gestiona zezala eskatzen zion, «Kultur Ekipamenduak» larurteko planari ekinik. Plan honen aipatu etxea kondizionatzeko subentzio batzuk arrikosten ditu, gastuen %60-70a Diputazioaren kontura izanik. Hau da, egiteko obrak 20.000.000 pztan balio izango balu, Diputazioak 13.000.000 pztan subentzionatuko luke eta gainontzeko 7.000.000 pztan Kultur Elkarteak eta Udalen arteko akordio baten bidez.

Egun haietan Udalak Agirre Jauregia-Valmar izenaz azgutago berreskuratzeko asmoa azaldu zigun, hastapenetan proiektu biak bideragarriak izan arren.

1985.eko Maiatzaren 30ean, Valmar-eko Kultur Etxearen aurre-proiektua burutzea erabaki zuen Udalen Plenuak, beste batzuren artean laururteko Kultur Ekipamenduak Planean aurrikusitako laguntzak aprobetxatuz. Erabaki honekin, Udalak Kultur Elkartearen gogo eta nahia zokoratzen zituen.

Nahi duzue egin ezazue!

Guk Valmar aukeratu dugu!

Oraindik argi ez ditugun zalantza eta galderentzako erantzunak izan ziren.

Zeintzuk dira finantz iturriak?

Zeintzuk udal kargak?

Zeintzuk izango dira etxearen erabilerak eta zertarako?

Zein izango da burutaldia? Sei urtetakoa behar bada?

Aldez aurreko ikerlan baten ezean oinarritzen diren zalantzak, 100.000.000 pezetakoko kostua duen oso handi-nahiko proiektua baita gainera kopuru hau.

Murriz gerta daiteke eta berau ez dugu guk geuk esaten, zinegotziek beraiek eta Diputazioaren teknikariek baizik.

Edonolako zalantzak arrazonagarri zirudien eta batez ere, gauzak honela ikusita, irteera interesgarri gisa Areizagaren burutzea planteiatu zen Kultur Elkartearen lokale eza konpontzeko lehen pusu bezala eta Valmar martxan jarri ondoren Areizaga aurrekora edo Udalak egoki zeritzon beste aktibitateetarako erabiltzea (onartu ez zuen proposamena).

Ekainaren erdialdean eta geroago Irailean Diputazioan Imanol Murua eta Xabier Leterekin bildu ginen, eta azken beronek Areizaga proiektu bideragarri eta Valmar-ekiko bateragarria zela esan zuen eta honelaxe azaldu zion Alkateari, Diputazioak proiektu berrak burutzean eragozpenik ez zuela jakin eraziz.

Desenkantua Udalarekiko bilera ondoren 1986.eko Urtarrilaren 21ean proposamen bat aurkeztu zigutenean heldu zen, Kultur Elkarteari Areizagaren erostetarako 20.000.000 pezetakoko mailegua eskatzen aurrekora kartzeko bertan.

Nora zoaz? Zazpiak dira. Edo antzeko zerbait suertatzen ari zen.

Kultur Elkarteak Udalarik espizifikatze diru kopuru eta maileguari dagokienez bere adostasuna azalduz erantzun zion, baina etxearen zertarako aurretik azalduetakoa izan behar zela, eskatzen duten Kultur Erakundeek erabil dezakete Kultur Etxea, alegia.

1986.eko Otsailaren 19an Udalak idazki lakoniko eta saskar baten bidez erantzun dio gure proposamenari, testualki zera azalduz:

-LA PROPUESTA PRESENTADA POR CULTUR ELKARTEA, EL 4 DE FEBRERO DE 1986, REFERENTE AL TEMA DE LA CASA DE AREIZAGA, NO PUEDE SER ACEPTADA POR SER MUY DESFAVORABLE PARA ESTE AYUNTAMIENTO. ESTA DECISION SE TOMA POR MAYORIA, CON LOS VOTOS A FAVOR DEL P.N.V. Y EN CONTRA DE PSOE, E.E. Y H.B.

PUES TAMBIEN SE CONSIDERA, POR LA MISMA MAYORIA, QUE NO SE HARA NINGUNA CONTRAPROPUESTA.

Antza denez, gehiengo honek Udalen honetarako OSO KALTEGARRI deritzo Kultur Elkartearen Areizaga Etxearen berreskurapena 20.000.000 pezetan Finantziatzeko prest egoteari, berau Kultur Etxea bihurtuz.

Erraizunik gabe.

# AREIZAGA

## *una ilusión, un desencanto*

LA ilusión comenzó un final de Febrero cuando los inconvenientes del Testamento para la creación de un Patrimonio por un lado y las limitaciones físicas del edificio Ostolaza, parecían resolverse con la adquisición de la casa Areizaga destinándola a Casa de Cultura.

En un primer momento y vistas las condiciones de venta y el estado del edificio, mantuvimos unas reuniones con el Ayuntamiento al que le expusimos nuestras intenciones. Kultur Elkartea estaba dispuesta a comprar la finca y solicitaba al Ayuntamiento gestionase ante la Diputación la creación de una Casa de Cultura acogiendo al Plan cuatrienal de «Equipamientos Culturales». Este Plan prevé unas ayudas a fondo perdido que permitirían acondicionar dicho edificio corriendo la Diputación con el 60-70% de los gastos, con lo que en el supuesto, por poner un ejemplo, de que la obra a realizar costase 20.000.000 ptas. la Diputación subvencionaría con 13.000.000 ptas; y los restantes 7.000.000 ptas, llegar a un acuerdo entre Kultur Elkartea y el Ayuntamiento.

Por estas fechas el Ayuntamiento nos manifestó su intención de recuperar el Palacio de Agirre -más conocido como Valmar- si bien en un principio los dos proyectos eran viables.

El 30 de Mayo de 1985 el Pleno del Ayto. acordó realizar un anteproyecto de Casa de Cultura en Valmar y acogerse entre otras a las ayudas previstas en el Plan cuatrienal de Equipamientos Culturales. Con esta decisión el Ayuntamiento ignoraba la voluntad y el deseo de Kultur-Elkartea.

¡Vosotros haced lo que queráis!

¡Nosotros vamos por Valmar!

Fueron algunas de las respuestas que tuvimos por contestación a preguntas y dudas que teníamos y que hoy todavía no se han despejado.

¿Cuáles son las fuentes de financiación?

¿Cuáles las cargas municipales?

¿Cuál va a ser el destino y los usos del edificio?

¿Cuál es el tiempo de realización? Quizás 6 años, quizás...?

Dudas que se basan fundamentalmente en la falta de un estudio previo ante un proyecto muy ambicioso con un coste superior a los 100.000.000 ptas., cifra que se antojaba corta, y conste que esto no lo decimos nosotros, sino los mismos concejales y hasta los técnicos de la Diputación.

Cualquier duda parecía razonable y máxime cuando vistas las cosas así, se planteó como una salida interesante la realización de Areizaga como paso previo a resolver la falta de locales de las entidades culturales y, una vez en marcha Valmar, destinar Areizaga a parvulario u otra actividad que considerase oportuna el Ayuntamiento (Propuesta que no aceptó).

A mediados de Junio y posteriormente en Septiembre se mantuvieron reuniones en la Diputación con Imanol Murua y Xabier Lete quien manifestó que Areizaga era un proyecto viable y compatible con Valmar y así le comunicó al Alcalde, haciéndole saber que la Diputación no tenía inconveniente en la realización de ambos proyectos.

El desencanto llegó cuando tras una reunión con el Ayuntamiento nos fue presentada el 21 de Enero de 1986 una propuesta solicitando de Kultur Elkartea un préstamo de 20.000.000 ptas. con destino a la compra de Areizaga **para ubicación de un parvulario.**

¿Dónde vas? Manzanas traigo. Algo parecido estaba ocurriendo.

Kultur Elkartea contesta al Ayuntamiento manifestando su acuerdo en lo referente al préstamo y la cantidad a especificar, pero que el destino del edificio ha de ser tal y como anteriormente lo habíamos expuesto, es decir, una Casa de Cultura a la que tengan acceso las entidades culturales que lo soliciten.

El 19 de Febrero de 1986, en una nota lacónica y grosera, el Ayuntamiento responde a nuestra propuesta diciendo textualmente:

LA PROPUESTA PRESENTADA POR KULTUR ELKARTEA, EL 4 DE FEBRERO DE 1986, REFERENTE AL TEMA DE LA CASA DE AREIZAGA, NO PUEDE SER ACEPTADA POR SER MUY DESFAVORABLE PARA ESTE AYUNTAMIENTO. ESTA DECISION SE TOMA POR MAYORIA, CON LOS VOTOS A FAVOR DEL PNV Y EN CONTRA DE PSOE, EE, Y HB.

TAMBIEN SE CONSIDERA, POR LA MISMA MAYORIA, QUE NO SE HARA NINGUNA CONTRAPROPUESTA.

Según parece, esta mayoría considera MUY DESFAVORABLES para este Ayuntamiento que Kultur Elkartea esté dispuesta a financiar con 20.000.000 ptas. la recuperación de la Casa de Areizaga destinándola a Casa de Cultura.

Sin comentarios.



URTE berri batetan gaude, eta zuekin hiru aldiz egoteko asmoz: orain udaberrian, udan eta, bukatzeko, neguan.

Antza denez, jendea ausartzen ari da pixka bat artikuluko polemikoagoak ateratzera. Bestela, bazi-rudien gure herrian ez zela ezer problematikorik gertatzen. Eta, badakizue, dena arroxka kolore azaltzen denean, oso sineskorra ez dela.

Baita ere nahi nuen herrian errepresentatuak dauzkagun partiduek, hurrengo hauteskunderako beren aurre-egitaraua aurkeztea, eta horretarako eskutitz bat bidali diegu, zenbait gaiei buruz erantzuteko galdera edo gidoi batzurekin. Oraindik zuen berri asko jasotzeko nago.

Eta amaitzeko, zera esan nahi dizuet: Azkenengo orrialdean azal dezakezuela nahi dituzuen iragarki guztiak: lan eskeintza-eskakizunak, salerosketak, andre-senargaiaren bila ba zaudete, eta abar.

*¡Hola!*

*Hoy os saludo desde el Taller Literario.*

*¿Que qué es eso? Pues unas reuniones que se celebran algunos sábados en Kultur Elkarte, en las que se juntan unos cuantos amigos míos, que son, en definitiva, los que hacen que yo salga a la calle.*

*¿Y de qué hablan?*

*Pues de muchas cosas, pero, sobre todo, de mí. Cada uno aporta sus ideas en cuanto a posibles entrevistas, reportajes y otros artículos que pueden ser de interés para el pueblo.*

*Casi parece que lo que más les gusta es la historia y la información sobre asuntos serios, pero a mí también me agradan los cuentos, las poesías y todo lo que hace reír o, al menos, sonreír. Y también «chincar» un poco a la gente, aunque sin ánimo de ofender.*

*Yo os animo a que os deis una vuelta por aquí. Hay muy buen ambiente y todas las ideas son bienvenidas. Estas reuniones se anuncian previamente mediante carteles. Y si no os viene bien pasar, también podéis colaborar con cualquier comunicación que queráis enviarnos.*

*La próxima vez saldré a la luz para el verano, pensando en el sol, la playa, los veraneantes, las fiestas, las vacaciones...*

*¡Humm...! ¡Qué bien lo vamos a pasar!*

# ATXURREKIN SOLASEAN

Gerra inguruko Abertzaletasun giroaz

*Lau aldetako euskaldun danak  
ez izan bada lotzia  
maitasunez begira dago  
andutz gaineko gurutzia.*

*Atxur*

**Esku artean Udaberriko lehen DEBA aldizkaria du. Hasieran artikulua gustatzen zitzaiola esana bait zuen, eta saiatzen bada ere, azkenean ez dugu aurkituko. Eta hura utzita hasiko zen kontakizunetan.**

**Atxur-Martzelino bizi da... (berari buruzko erreportaia ikusi bait du DEBA aldizkarian).**

**Galdera.- Hurrengoan Iñaxio agertuko da.**

A.- Zergaitik ez da astero-koa ateratzen?

**G.- Badago... ARGIA. Itziarren ba al dago eskribitzen duenik?**

A.- Joseba Zulaika...

**G.- Nor zara zu, baina,...**

A.- Jabier Aginagalde.

**G.- Non jaioa?**

A.- Uzarruan, hemen bertan, baserri honetan.

**G.- Noiz?**

A.- 1914 ean.

**G.- Non bizi izan zara?**

A.- Hementxe beti. Semee-tan zaharrena... eta zaharrena beti etxean zehatu izaten da. Hortik aurrera: baserrian lana egin. Beste anaiek ere laguntzen zuten ezkontzea pentsatu zuten arte, edo lana konpondu zuten arte. Nik ere, soldaduska egin nuenean, zaharrena nintzen bezela, ezkontzea ere zera zen. 28 urtekin ezkondu nintzen: hamar seme-alaba hazi eta hezi.


**G.- Hamar seme-alaba? Non dituzu?**

A.- Bi Azpeitian, bat Donostian, bat Bergaran, bi monja, beste mutil bat etxean eta alaba.

## GAZTAROA

**G.- Eskola non?**

A.- Etxean. Garai hartan ibiltzen zen Altxerri deitzen zitzaion mutil zahar bat, «Mantenu aldera» edo, negu aldean. Horrela ibiltzen genuen barrio batean etxe baten bila, beste batean, eta bestean. Gure eskola, zer? Orduko eskola letzen ikasi! Ezer ikasi! Gero letzen ikasten genuenean: Dotrina, Komunioa egiteko, ba hori zen ordena. Gerora, hemen, Errepublika etorri zen. Eta etorri zenean



abertzaleak mogitu egin ginen.

**G.- Noren bidez sartu zinen?**

A.- Markiegi zenaz. Baina ez genuen lan haundirik sartzeko, ARGIA letzen genuen eta gero, mutil azkarraren Markiegi. Eta Deban eta Itziarren lan asko egiten zuen gazteekin. Baina gu ez ginen ezertarako agertzen, gazteak. Hor ibiltzen zen zaharrek propaganda egiten, eta botazioetarako eta, lan horietan. Baina guk, «Luistarrek», akuerdo bat hartu genuen, herrian lan egiteko. Eta «Luistar» hiru-lau batek, astero herriko karta egin behar genuela ARGIArako. Ez zenuke pentsatu zenbat lan egiten duen horrek: hemen ia danean sartu zen ARGIA hori, eta letu egiten zen, denak euskaldunak ziren, eta.

**G.- Zeintzu zineten erabaki hori hartu zenutenak?**

A.- Azkonarko Shanti, baina Shebain izena jartzen zuen. Honen anaia Juan Jose «Xenpelar», biak ziren bertsolariak. Bestea Atxuri, eta ni Atxur.

Eta Markiegi propaganda egiten, hau eta hori, eta nahi zuen jakin nortzu ziren hor eskribitzen zutenak. Eta besteen arrastoak hartu zituen, baina nere ez zuen hartzen. Eta Itziarren reunioak egiten genuen guztietan, elkarrekin izaten ginen. Ezin nuen beti ixilik, beti ixilik egon. Deklaratu beharra neukan, eta Itziartik goitik behera gatzozela, Atxur zein zen ba al nekien galdetu zidan. Baietz, ni ne nintzela. Harrez gero, gure etxera etortzen zen. Orain zuek bezela, hola.

Gure aita edadean sartua, ni gaztea. Horretaz

kontzejal atera behar nindutela ni. Esan nion nik lana egingo nuela, sasoi ona neukala, baina aita kontzejal bezela. Errespeto gehiago gizarterako, ni gaztea nintzela. Nik lanerako ez neukan eskusarik, eta hala ibilita nago ni! «Argente!» Boto biltzen. Botazioan ateratzen genuen kupoa, e! 9 kontzejal behar baziren, 9 aterako genuen.

Garai hartan ez zegoen Herri Batasunik!

**G.- Hau da, aitarentzat hasi zinen botoak biltzen?**

A.- Partiduarentzat, abertzaleentzat, Markiegirentzat. Zein gizonik zekienik hura zen gure artean. Eta oso bihotz haundikoa zen herriarentzat. Markiegirekin edukitzen genituen erreuniuak. Gerra etorri arte. Gerra etorri zenean, fitxatuta ginen aurre samar ibili ginenak.

**G.- Eta soldaduskarik?**

A.- Soldaduska Primo de Rivera denboran egin genuen. Pagatu egin nuen. Orduan lezakeenak pagatu egiten zuen eta Donostian serbitu. Instruzioa Deban egin genuen kapitain erretiratu batekin, oso zorrotza. Debako mutilak examinatar joaten ginenean, sobresaliente ateratzen genuen.



**G.- Baserri giroan beti?**

A.- Guk Donostian ere, ez genuen erdaldunik bilatzen kalean, kuartelean bakarrik. Gu erderarekin ibiltzen ginen gaizki. Teoria ikastea zaila.

Ni beti apartatzen ninduten, altua eta rektua eta zera nintzen, eta. Gero ipini ninduten instrutore. Tropak biajeak egin behar zituztenean gastadore.

**GERRA AURREA**

**G.- Zer moduko giroa gerra aurreko garai haietan?**

A.- Denok familiakoak. Azkenean zeredozer esaten bazuen Markiegik, bazegoen borondatea hura egiteko. Konfiantza gehiago zegoen gaurko aldean. Baziren zinegotziak abertzaleak ez zirenak, errepublikanoak eta. Jatorrak ziren baina, e! Neri

asko gustatzen zitzaidan kontrarioarekin diskuti-tzea. Batzu hitzegiten onak ziren. Bizi al da oraindik Antia? Deban jatorragorik ez mutila. Partidua-ren kontrakoa, errepublikano sozialista zen hura. Baina hitzegiten zekiena, e! Euskaraz! Etorri erre-zekoa. Markiegi baino biboagoa eta biziagoa, etorrera onekoa.

Horiek gu gixajo bezela beti. Izan ere, baserrikoak gutxiago korrituak ginen gauza hauetan. Nik neuk euskaldun batek nola zezakeen bere herriaren kontra hartzen nuen gaizki, eta hori zela etxearen kontra egitea. Gu, euskaldunak izatea aurretik. Kastellanoak izan bagina, izan gintezkeela beste partido bat. Baina euskaldunak garelako, hauxe dela gure aberria. Eta gu abertzale izatea, nik normala jotzen nuen. Hori dela ba, norberen etxea defenditzeko. Horrelakoetan azkar konprenitzen zuen, baina politikamente, nere aldean azkarra. Eta orduan, Errepublikako denboran, Ayuntamien-toko sesioak atez kanpo betetzen ziren. Haiek hitzegiten asko zekiten, eta. Baina Markiegik kupoa eramaten zuen. Eta genuen maioriak eramaten zuen gauza. Eta baserriko kontzejal danak abertzaleak ziren. Deban bi edo horrela sozialistak, Antia eta...

Gaur diferentea dago gauza. Eta gehien sufritzen dudalako euskaldunak euskaldunen kontra ikus-tean.

**G.- Eta orduan ez al zen berdin gertatzen?**

A.- Orduan ez genuen hori. Programa bat ateratzen zenean ere, herrian halako inpuettoa edo halako zeredozer ateratzen zenean, diskutitu, konprobatu, edo bai edo ez edo, gauza horretan joaten zen. Baina konfiantza ez da galtzen gauza horrekin. Hori beharrezko gauza da.

**G.- Zein udala zegoen orduan?**

A.- Orduan Aztiria eta Treku. Baina egiten zuten elkarren kontra. Horiek, politikarik ez zuten horiek egiten. Beren banda herrian goian egoteko egiten zuten. Baina gu Debara gutxitan joaten ginen.

**G.- Mitinetara, joaten al zineten?**

A.- Errepublika etorri zenean, lehenengo mitina euskaldunak Lizarran preparatu zuten. Hura izan zen inportantea. Eta gu, Itziartik bi mutil bakarrik joan ginen: Ni eta Shebain. Eta han berotu ginen gu, han piztu zen gure odola. Batipat gure kalterako...

**G.- Kalterako? Akabo...**

A.- Bai. Ni izugarrizkoak pasata nago, e?

**G.- Baina sentitzen dena...**

A.- Soldaduska amaitu zen eta etorri, segi mar-txan. Gero ezkondu egin behar zela ez zela, ezkon-du, txikitan esan ziguten bezela.

**G.- Eta?**

A.- Gerrak harrapatu ninduen lau txikirekin. Eta anaiak, denak joan ziren «aurrera». Baina nik ezin nuen mogitu. Andrea eta lau ume txikirekin bere etxera joan zen, Olanora. Baserrian ni eta aita gel-ditu ginen, amarekin.

**G.- Eta gerran?**

A.- Aita eta hoberenak sartu zituzten. Eta libratu nituzenean, berriz, neu sartu ninduten inkomunikatua Deban. Debako Ayuntamentuan bada kuarto itxi bat, eta hara eramaten zituzten egunez fitxatutakoak eta. Beti egoten ziren txibatua. Eta hala etorri ziren bi «guardia civil» eta bi erreketen ni era-

matera. Ba nekien etorriko zirela, baina ezin nuen ihesi. Informatuta nengoen ze jende klase zenbiltzan. Egunez sartzen zituztenak, gaez hil egiten zituzten. Kanposantura eraman, zuloa egin haien-tzako, eta gero, tiroarekin ez hiltzeagatik, matxetearekin: lehenengo kolpea kostilletara, eta makurtzen zenean lepotik. Hori ikusitakoa Gregorio da, «Atxuri». Haiek Aitz-Zurin bizi ziren eta Debako tunel haunditik kanposantua ikusten da.

Eta ni sartu ninduten arratsaldean, harrapatu zuten Debako «Xapo», uztargilearen ama. Harek esan zuen Nazionalak sartu zirenean «Viva la República». Hori esan zuela eta, sartu zuten, eta 81 urte zeuzkan e! Eta gauen garbitu zuten... Hori esanarekin bakarrik, ileak tente jartzen dira, e! Ez pentsatu orduan trankilidaderik topatzen zenik.

#### **G.- Nor zegoen sasoi hartan Debako alkate?**

A.- Antonio Treku probisional. Lehen zegoenaz ez naiz akordatzen... Markiegi izango zen Nazionalak sartu zirenean. Baina Markiegi eta, aldegin zuten. Antonio karlista zen, eta gu, abertzaleak. Hor partitzen zen partidua.

#### **G.- Eta handik nola atera zinen bada?**

A.- Itziarko Amari nobena bat ofrezituta. Aguazila Julian zaharra, gure aitaren edadekoa zen, jatorra gizona. Inkomunikatuta nengoenean, hark ekar-tzen zidan neri jateko behar nuen apurra. Hortik aurrerakoa esaten ere ez da erreza. Hortik aurrerakoa ia milagro bat izan zen. Hogeia egun neramatzan barruan kalera irten nintzenean.

#### **G.- Nola utzi zintuzten, horrela besterik gabe?**

A.- Bai. Gainera 5.000 pezta multa. Dirurik ez nuen, ezin bilatu dirurik, ez zen dirurik oraindik gar-rai hartan. Ez ziren egun ederrak! Gero eman zidaten hiru hilabeteko etxean kartzela, irtetzerik ez, baina beti beldurrez, aidean.

#### **G.- Eta besteak?**

A.- Altzeta eta, gero, gerra denboran, sublebatu egin ziren.

#### **G.- Aldatu, e?**

A.- Bai...

### **GERRA ONDOREN**

#### **G.- Gero, Gerra ondoren ixilik ezta?**

A.- Euskarazko gauza guztiak ere, denak kendu zituzten. Pentsa «mil rayas» galtzak ere ibiltzen ere ez ginen inor atrebitzen, eta errepublikako denboran denak...

Gerra etorri zenean, tamaina hortantxe etorri zen euskaldunen aurka. Gerria txarragorik ez da etorriko baten batean gerra etortzen bada. Gutxi izango da haren aldean.

#### **G.- Galtzak «mil rayas»?**

A.- Kolorea egiten zuen gauza guztiak, hori dena, fuera!

#### **G.- Batzokia?**

A.- Akabo dena, euskararen aldeko gauza dena, euskaraz hitzegiten ere beldurrez. Zeinek zeini... espionajeak galtzen zuen eta...

#### **G.- Zeintzu ziren buru frankistak hemen sartu zirenean?**

A.- Itziarren... Etxeberri zahar, Murgizabalekoak, Trekukin ziren ia bat, Trekuk ipinitakoak ziren.

#### **G.- Geroztik hobeto joan al dira gauzak?**

A.- Gaur ezin dut, sufritu egiten dut giza-hiltzea... Erlijioa gastatu egin da.

#### **G.- Erlijioa?**

A.- Bai, lehen hiltzen zituzten, bai, erlijio aldeko eta partiduko, eta, bai, bestelakoak, baina justizia aldetik edo... ez dakit ba nik... ba nik... zer esan gaur hainbestetan hiltzen den hainbeste gizon.

Gizona errezege hiltzen da gaur... neretzako... bai.

Neu makala naizelako, edo...?

Gizonak bizia berea du...

#### **G.- Zer iruditzen zaizu, erlijioaren faltaren ondorioa dela?**

A.- Hori. Edo lehengoaren bueltan bat edo... baina hor politikoa izateaz aparte, beste opinio bat. Batzuk dira beroagoak, e? Hauxe egitea merezi du, batek esaten badu, besteak egin. Zuk ez diozu agindu behar hori egiteko baina... hori ixil-ixilik badago, hori joan eta egin. Eta beste batzuk, berriz, hogeia duro ganantzia nahiko. Guztirako jendea jarri garela uste dut.

#### **G.- Eta bestela?**

A.- Bestela..., bestela askoz hobeto. Orain bezala sekula ez dut ezagutu bizimodua.

#### **G.- Euskara?**

A.- Euskera ondo doa... Ondo. Euskeraren aldetik oso ondo, zergatik nire alaba zaharrena ezkondu zenean Zumarragan, orain dela hogeia ta bost urte edo... dena erdara zen Madriden bezala. Zumarragan kanpoko jendea asko, eta bertakoa ere hala eta. Gaur joan zaitez eta dena euskera dago kallean. Gazte jende hori, ikastolako jende hori... Pixka bat horiek dabilzan tokira hurreratu eta poza ematen du.

#### **G.- Euskara aldetik, beraz, asko aurreratu da?**

A.- Askok. Euskera baserrian bakar-bakarrik jarrita zegoen, baserrietan ere kontajiatuta hasita ere toki askotan erdarari... Baina gaur ikusten dudana, ikastola aldetik datorren zer... hori... Honek berrituko duela... Eta gainera ikusten ditut gizonak, balio dutenak. Gaur «Korteetan» eta denean daude gizon jatorrak. Gizon aukera behar da... e?

#### **G.- Alderdia (E.A.J.), lehen eta orain, nola ikusten duzu?**

A.- Orduan Markiegi baino finagorik... Jesukristoren parekoa zen...

Markiegi, e? Herriagatik odola eman zuen, e?

Partidua iguala. Euskera eta Herriaren alde zihozten orduan, eta gaur ere, horixe ari dira. Ikusten dudana da orduan baino giza aukera gehiago dagoela gaur partiduan.

#### **G.- Pentsakizun desberdinak?**

A.- Pentsakizun desberdin horiek ez zaizkit batere gustatzen. Horiek daude askotan kontra egitearren jarrita... bai. Beno, gu abertzaleak, askatasun bila goaz eta H.B.koak, zeren bila doaz? Gauza berdina? Zertan gabilta, ba?... Elkarren kontra?...

Zer ikusten dute hor?... Independentzia kolpe baten emango diela? Zeinek? Hori edozein inuzentek daki...

Hor lan asko egin beharko da eta oraindik odol asko eman beharko da independentzia ailegatuko bada. Bien bitartean... behar ditugunak... gizonak!

**G.- Lehen eta oraingo giro abertzalearen diferentzia?**

A.- Lehengoa alaiagoa. Konfiantza elkarrekin lehen gehiago. Gaur jendea seriotuta dago asko.

**G.- Seriotuta?**

A.- Bai. Seriotuta. Esango nuke jauntxotuta, baikoitza bere aldera...

**G.- Zein iritsi daukazu Nafarroaz?**

A.- Nafarroa etorri egingo da.

**G.- Bai?**

A.- Bai, niretzat bai. Arte bitartean etsaiak dira...

**G.- Etsaiak direla?**

A.- Zergatik Gobernuak ere asko atakutzen du gure kontra. Nafarroan eta bertan ere ni bezalako egoskor asko dago... hor... e? Karlista naparrak! Horiek kateak egin gabe, zenbät jaleo atera duten... Horiek hiltzen joan behar dira... Gastatzen joan behar da. Hori ez dago mugatzerik... Baina eskolatik datorren zera hau, oldar hau, belar hau, horiek beste gauza bat jarriko dutela pentsatzen dut nik.

Eta, gainera, bero etorriko da abantatzen denean, bai...

**G.- Euskal Gobernuak? Nola ikusten duzu?**

A.- Ondo. Gu ondo goaz.

**G.- Garaikoetxea edo Ardantza?**

A.- Ez dut ezer apartatzen. Birekin ni gustora nago. Beste zera horiek... tartean dauden horiek... Krisis eta tontokeri horiek ez dira denetzat egiten. Gu joan behar dugu denen gainetik, eta premia denean, denak batera.

**GAZTERIA**

**G.- Gaurko gazteria?**

A.- Gaur gazte asko ikusten dut noragabeen... Droga eta... zera... Berrogei urte harrapatzeko gogorik ez daukan gaztea.

**G.- Hainbestearino?**

A.- Bai. Dena da droga eta lanik eza. Lanik ez dagoelako, elkarrekin txurrutean, droga eta berrogeitamar urtekin egin behar diren lanak, hogeitamarrekin. Eta horiek berrogei urterako nahiago dute hilda bere burua ikusi, aspertuta daude munduan, eta.

**G.- Eta...**

A.- Gazte onak ere ba dira, e! Askok ere ba dago, baina lanik gabeko beste grupo batzuk, e!... Beldurra ematen didate gainera...

**G.- Baina gazterian itxaropena ba daukazu, ezta?**

A.- Dakitenak ere ba daude. Dakiten jende asko ikusten dut nik gaur. Borondatea jarri behar. Gerra bat ez bada etortzen, behintzat.

**G.- Gerra?**

A.- Ezin konpondurik gabiltza, arren... Bata, beste...

**G.- Ba, zuen sasoieta ere, ba ziren istiluak...**

A.- Erlijioak ere bere gauzak ba dauzka eta sozialistak erlijiorik ez dute...


**G.- Orain? Eta lehen ere...**

A.- Orain ere badakigu hori. Baina hori baino gehiago edukatuta dagoela esango nuke nik. Hori! Nahi dut jakin nik gaur hiltzen den jende hau. Azkenen non daukan honek... Hortikan zer kontsegitu daiteke? Ez, ez nago batera indarraren alde. Indarra dagoela Euskal-Herrian, bai. Baina arrazoiak mahaian egin behar den lana da hori... Indarrez hasten bagara gu Espainiarekin, gu ez gara inor Espainia dominatzeko... Eta indarrakin hasten badira lehen hasi ziren bezala...

Baina arrazoiz zergatik ez du erabaki behar. Zertarako dago herria, gizonak zertarako dira...

Atxurren etengabeko kontakizunak ohartu gabe, ilunabarreko iluntasunak baserri zaharreko sukaldea betetzen digu. Kafesne beroak gure solaskidea hain kezkatu mantendu duen mahai gaineko «sorgin kontalaria» geldituko du. Lasaingo, orain, beste hainbat zehaztasun ematen jarraitzen du. Gu, gure aldetik, bukaezinezko entzunaldia gerta daiteken arriskua somaturik, argazkiak atera ondoren, beste itzuli baten promesan usten dugu.

*Jose Mari Altzibar  
Joseba Eskudero*



# Kilometroak 86: Beharrezko helburu bat motibatu nahirik

*Metroz metro egiten omen da kilometroa, orduz orduzko langintza-  
ren ondotik sortu zen ikastola, hitzez hitz sortu zait artikuluak.*

*Itsasertzeko herrixkan urteak dira sortu zela ikastola, Andutz eta  
Arno mendien itzalean, Kantauri itsasoaren aurrean, Deba ibaiaren on-  
doan, hor eraiki zuten «Itziarko Ama ikastola» hizkuntza bizirik dirauen  
artean herria bizirik dirauela sinesten duten herritarrek.*

*Ordulariaren orratzak itzulia egiten duten bezelaxe, horrelaxe datoz  
eta doaz urteak, astiro baino ziurki. Kilometroak ere horrelaxe doazkigu.  
1977. urtean, Beasain-en ereindako haziak bederatzi urtetako fruituek  
eman dituzte jadanik, hamargarrena datorrigu oraingoan, hel diezaiozun  
eta goazen aurrera!*

*Aurrerabidea, bide zabal gerta dakigun hor doakizue Itziarko Ama  
Ikastolako zuzendaria den Fatima Beristain eta Guraso Elkarteko lehen-  
dakaria den Mari Kontxi Larrañaga-kin eginiko elkarriketa.*

**GALDERA.- Zein da Kilome-  
troak 86 honen helburu zehatza?**

**ERANTZUNA.-** Gaur egungo ikas-  
keta teoriko hoiek aurrera jarraitzeko  
posibilitatea ez duten guzti hoientza-  
ko alternatiba bat eskaintzea. Zein den  
alternatiba hori? Ofizio bat, lanbide  
bat erakustea, urte batzuk barru ofizio

formazio oso bat lortu ahal izateko.  
Hitz batean, lanbide bat oinarritzko  
kultur heziketa batekin lor dezaten  
eskaintza egitea.

**G.- Ofizio bat kultur heziketa  
batekin diozue. Baina guzti ho-  
nen motibapena nondik sortu zit-  
zaizuen? Zeren zuek Kilome-**

**trua?**

E.- Begira, irakasle bezala beti egon  
gara kezkatuta urtero ekainean egiten  
den azken ebaluaketan atzera geldi-  
tzen den ume kopuru horretaz. Be-  
rauen gurasoek kalean ez uztearren  
sarritan FP-ean sartzen dituzte, BUP-  
erako ez direlako gai, edo eta lortzen  
duten agiriak BUP-erako posibilitate-  
rik eskaintzen ez dietelako. Beraz FP-  
ean edo eta gaurengungo REM-n  
sartzen dituzte, baino hor ere ikasi  
egin behar da, asignatura teoriko bat-  
zuk baidaude. Baino hauek errezasu-  
nik ez daukatenez asko eta asko bi-  
dean gelditzen dira. Bestalde baserrie-  
tatik datozkigun ikasle gutxi jarrai-  
tzen dute.

Guzti hau ikusirik, beti pentsa-  
tzen genuen hauekin zer egin? Ez dira  
inozoak, ez! Baina gaurengungo hezi-  
ketakin; teoria, titulua eta abararen-  
tzako ez daukate kapazitate bat. Baina  
usten dugu ofizio bat erakutsi diezaie-  
gukela eta urte batzuk barru zerbait  
izan.



*Haurrak dira jar diezaiegun bidea gerorako.*

horren bidez baliatzeko. Noski, hori  
ez da nahikoa izango, guzti hori kul-  
tur aktibitate batzuekin osatu behar  
da; musika, euskara... guzti horrekin

**troak antolatzeko eskakizuna le-  
hendabiziko aldiz egin duzue, es-  
kakizun garrantzitsu hau egiteko  
motibapena nondik sortu zitzaie-  
n?**

**G.- Arazo honetaz gehiago jabe-  
tzeko, ekaina heltzen da, azken  
ebaluaketak egiten dituzue, eta  
zenbat gelditzen dira bidean? Zer**

nolako datuak dituzue?

E.- Bailerako zentroetan eskatu ditugu zenbait datu. Noski datu hauek FP-ari eta ikastolei dagozkie, beste zentroetan ez baiditugu eskatu. Datu hoietan ikusten dugu batez beste ehuneko 25-a gelditzen dela graduatu eskolarra lortu gabe. Honek ematen baidie aukera BUP-era joateko.

Ehuneko 25 hoietatik batzuk FP-ra joango dira, baina beste batzuk ezta hori ere ez dute egingo. Joaten diren zenbait 16, 18 urte bitartean kallean ez gelditzearren joaten dira. Baina usten dugu hori ez dela kontua, hauek ere besteak bezalaxe zeredozer edukitzeko eskubidea baidute.

**G.- Datuak hor daude, datu kezagarriak zalantzarik gabe. Datu hoiek zuek guraso batzordearen aurrean aurkezten dituzue, eta batzordean nola ikusten da arazo hau? Ze aterabide ikusten zaio guzti honi?**

E.- Aterabide bat emateko irtenbide bat ikusten zen, ume hauentzako egokiena tailer eskola bat ipintzea izango litzatekeela bidezkoena.

**G.- Beno, baina nondik sortzen da tailer eskola hori sortzeko ideia, zeren tailer eskola bat zer zenik ez baizenekiten?**

E.- Hemen ikastolaren sotoan metro karratu pila bat daude ezertxo ere egin gabe. Sarritan pentsatzen genuen guzti hori ikusita asignatura eta tailer batzuk batera eramanez ezker zerbait sortu zitekeela. Argazkigintza, aroztokia... zeredozer behintzat!

Orduan hori planteiatzerakoan horra hor esaten duen guraso batek, telebistan era horretako eskola batetazeginiko erreportai bat ikusi duela. Kontxo! Horrelako eskola batek existitzen badu, zergatik ez egin guk horrelako bat? Goazen hura ikustera eta beharbada ikastolaren sotoan horrelako bat eraiki dezakegu derrigorrez lanbide batekin pentsatu gabe. Hau da, oinarritzko hezkuntza orokorreko ikasketak konpaginatu ditzagun tailer batzuekin. Bihen bitartean heziketa gustagarri bat eskaintzen badugu, askoz ere hobe. Gainera Madridko Buitrago-ko eskola honetan 14 urtetik gorako umeek ikasten omen dute. Beraz gure kasu berbera da. Hori bai, han frakasu eskolarra ia ia ehuneko ehuneko da dute.

**G.- Ehuneko ehun? izugarritzko datua da hori ezta?**

E.- Beno, ez da hainbestekoa baina hori bai, frakasu eskolarra haundia dute benetan, %90-a inguruan kokatzen da datua. Oso gutxi ere bukatzen

dute OHO, eta gu geuk ere antzerako arazo bat dugu.

**G.- Kontaktoa egin beraz eta Madrid-era joaten zarete, lehen inpresioa zain da? Egoera soziala hemengoak bezalakoa al dute gero?**

E.- Beno lehendabizi esan behar dugu oso harrera ona egin zigutela han. Oso pozik jarri ziren hura ikustera joan ginelako. Baina hori bai, behin eta berriro esan ziguten, ea zuek badaera honelako bat martxan jartzen duzuen, zeren ikustera asko etortzen dira, baina gero asko bidean gelditzen dira. Guk esan genien hura ikustera joan baginen horrelako proiektu bat aurrera eramateko asmoa genuelako zela, ez besterik.

Buitrago Madrid-ko mendikatean dago. Baina hor bi ingurugune dituzte, urren daukaten ingurugunea mendikate aberatsa dute. Hor asteburuetako erresidentziak, hotelak, eta batez ere Madrid-tik apurka apurka joan den jendea bizi da. Jende trasaldatua



Zer nolako ordutegia nahi ote lukete hauek?

keta honek eraginik izan du hauekiko. Batez ere mentalitatearen zabalketa aldetik. Mendikatearen alde bat hori da, eta bestean hauek bizi dira askoz ere egoera eskaxagoan; pobreagoak dira, langabezia haundia dute, ez daukate tailerrik... batez ere nekazaritzan lan egiten dute. Guraso batzuk esaten ziguten bezala, beraiek ez dute haurrenganako heziketa mentaliterik, are gutxiago neskekin. Heziketa bat eskaini, sakrifikatu eta abarretaz ez dute inongo mentaliterik.

**G.- Mendikate pobreak kokaturik daudela diozue, baina hala eta guztiz funtzioaren bat beteko**

**dute, agian zerbitzu funtzioaren bat?**

E.- Hori da, hauek ikusten zuten mendikate aberatsekoek Madrid-era joaten zirela zerbitzu hoiak bila han bertan ez zituztelako. Orduan galdetzen dute, zergatik ez diegu guk zerbitzu hoiek eskaintzen? Bizimolde hori zerbait urrera dezakegu gugana eta bide batez dugun arazoari irtenbide bat eman. Lehenengo eskaintza bat egin eta prestaketa baten ondorioz ahal den neurrian erakarri mendikate pobreruntz haien eraikuntzak.

Noski han izugarritzko lurraldeak dituzte. Honen edo eta haren herentzia bidez lorturikoak, baino lurralde haundiak. Eta finka hauetan jandak hasiak dira erresidentzia batzuk eraikitzen, horrezgain negutegiak, pabellioiak...

**G.- Beno baina Madrid-ko kasua eta hemengoaren artean zenbait desberdintasun daude. Han ikusten denez maila sozialen desberdintasuna haundia da, eta noski**

**hor batzuk funtzio betekizun bat bilatzen dute. Hori hemen planteiatu al daiteke gero?**

E.- Bai! beno, guretzat hura hareako da. Esango genuke Deba behe mailan posibilitate haundiak daudela. Alde batetik hemengo mentalitatea askoz ere gorago dago, bestetik heziketakin askoz gehiago arduratzen gara. Esango ditugula hemen tankerako gauza bat egiteko, baina ahalbide gehiagorekin, batez ere hemen mentalitatea aurrerago dagoelako.

**G.- Funtzionamendua aipa dezagun, 14 urteko mutikoak hartzen zituztela zenioten, 14 urtetik ze**



*Kilometro ugari egiteko prest Debako neskatoak.*

**urterarte?**

E.- 17, 18 urterarte edukitzen dituzte. Hiru urte pasatzen dituzte tailerretan beraz. Gero badaude batzuk erdi irakasle bezala edo bertan gelditzen direnak. Urteetan pasatu arren, askori bertan kokatzen zaie, eta hauek langile bezala gelditzen dira.

**G.- Irudi bat har dezagun, zenbat ikasle daude han? Bai neskak eta bai mutilak.**

E.- Neskak gutxi oraindik, aurtengoan hartu dituzte batzuk. Ikasleak guztira 90-en bat izango dira, eta hoietatik neskak 14-ren bat.

**G.- Ze esperientzia desberdin ematen dira? Hau da ze asignatura praktikoa ematen dira?**

E.- Han ematen diren asignaturak ez dute teoriarik. Han lanaren bidez, praktika bidez ofiziora pasatzeko esperientziak erakusten dituzte. Lehenengo urtean irakasle espezializatu batekin aritzen dira ikasten. Noski irakasleak ez dira titulodunak, non topaten duzue hoietako bat? Baina bai ordea profesionalak.

**G.- Ofizio bat praktika bidez irakasten dute beraz, baina ze ofizio dira hoiek?**

E.- Ba, aroztegia, iturgintza, elektrizitate, berogailuak montatzen eta konpontzea, nekazaritza, sukaldaritza, jostungintza... aurtan bestalde erlegintzarekin ere hastekotan ziren, guztira 12-ren bat ofizio irakasten dituzte. Baina hori bai, batek hoietariko bat aukeratu behar du, ezin daitezke batek bestera aldatzen ibili.

**G.- Noren laguntzarekin funtzio-**

**natzen du eskola honek? subentzioak nondik jasotzen dituzte?**

E.- Ikasle hoeik erdiak bertakoak dira, hau da errikoak. Eta beste erdia Tribunal Tutelar de Menores erakundeak. Bigarren kopuru honegaitik ez dakigu laguntzarik jasotzen zuten ala ez.

Haiek ziotenez, esku artean ezer eduki gabe erakundeetara jotzen baduzu, ez zaituzte kontuan hartzen. Orduan hauek lehendabizi proiektua martxan jarri zuten eta ondoren datoak eta proiektua gauzatzen ari zen neurrian eskakizunekin hasi ziren.

**G.- Baina subentzioak nondik jasotzen dituzte azkenik?**

E.- Estatuko Hezkuntza Ministeritzatik. Baina subentzioa jaso ahal izateko eskola legezatu beharrean aurkitu ziren lehendabizi. Hau omen da legepean dagoen eta horretako lehen eskola.

**G.- Subentzioa beraz Hezkuntza Ministeritzatik jasotzen dute, baina ze apartadotik?**

E.- Beraiek ziotenez hor heziketa berezirako apartadoan ba omen dago hutsune bat, eta hutsune hori aprobetxatuz heziketa bereziaren arloan sartu zituzten aurrekontuak.

**G.- Laguntza bakarra hau dute edo badago besterik ere?**

E.- Beno, Tribunal Tutelar de Menores horretatik ere zerbait jasotzen dute. Hain zuzen 1.000 bat pezeta haur bakoitzeko. Alderdi horretatik ez dute laguntza askorik jasotzen.

**G.- Ordutegi aldetik nola konpontzen dira? Ordutegi zehatzik**

**badute?**

E.- Eskola baten ordutegia daukate. Goizeko 8,30-etan hasten dira eta eguerdiko 1-ak arte ariten dira tailerretan. Bakoitzak berari atsegin zaion tailerra aukeratzeko du, eta sei hilabete edo urtebete tailer horretan pasatu ondoren aldatzeko aukera ematen diete. Baina beti ere lehenengo urtean daukate aldatzeko posibilitatea, urren-go urteetarako hoietariko bat aukeratu behar dute, azkenik aukeratu duten ofizio horretan espezialista ateratzen direlarik.

**G.- Orain arte zer nolako etekinak eman ditu eskola honek? Emaitzarik jasotzen ari al dira gero?**

E.- Eskola hau duela 20 bat urte sortu zen. Hain zuzen Franzisko Ruiz Redondo apaiza izan zen proiektu honen bultzatzailea. Haseran gaurregungo proiektuaren antzeko batekin hasi ziren, baina gero Gobernu sartu eta FP-ko zentro bat izatera behartu zituzten. Baina berriro ere arazo berdina zutenez gero, 1981 urtean edo berriro lehenengo proiektura itzuli ziren. Beraz 1981 urtetik honuntzako esperientzia dute, eta jadanik lehen promozioa ere atera da.

**G.- Lehen promozioa atera da beraz, baina hauek gero kolokaziorik izan al dute gero?**

E.- Bai, batzuk kooperatiba txikiak sortu dituzte. Beste batzuk ostera eskolan bertan gelditu dira lanean; aroztegia, almagarria eta abar eginaz...

**G.- Beno, guzti hori eskola horren funtzionamenduari dago-kionez. Baina handik zer nolako dokumentazioa ekarri zenuten?**

E.- Beraiek zuten dokumentazio guztia ekarri genuen. Hango mendikatearen estudio sakon bat, hau da nola dagoen egituraturik, ze kondizio dituen, ze pauso jarraitu dituzten, funtzionamendua bera, eta batez ere zer suposatu duen guzti honek berrikuntza ikuspegi batetatik begiraturik.

Guztira araudiak, dokumentuak eta abar kontatuaz bosten bat txosten ekarri genituen.

**G.- Guzti hauek esku artean dituzuela, zer nolako estabaida sortzen du honek Gurasoen batzordean? Sortzen al du gero eztabaidarik?**

E.- Guraso batzordean eztabaidarik sortu zuen bai guzti honek eta ideia oso interesgarria zela iruditu zitzairen. Azkenik horrelako baten atzetik joatea erabaki genuen, zeren ikusten baigenuen haien eta gure arazoak berdin

zamarrak zirela.

Bailarakoekin ere eduki genituen zenbait bilera, eta hauek ere proiektu hau oso ona zela iruditu zitzaion. Hauek ere ados zetozen gurekin esanaz honelako proiektu bat aurrera atera behar genuela.

**G.- Gurasoen batzordean ontzat ematen da honelako proiektu bat bultzatzea, baina nola lotzen duzue guzti hau kilometroen antolakuntzarekin?**

E.- Gurasoen batzordean erabaki zen bezela guzti hau gurasoen asanblean planteiatu genuen esanaz egon zitekeela posibilitate bat kilometroen antolaketa hartu eta proiektu honi horrelako bultzada bat emateko. Ordu-rako Gipuzkoako Ikastolen Federazio-koekin harremanetan jarriak geunden, eta hauek ongi ikusten dute proiektua. Orain arteko proiektuetatik desberdina bai, baina toki bat eduki dezakeena.

Orduan informe bat eginaz txosten bat burutu genuen eta hau Federazioaren aurrean aurkeztu genuen. Hori baino lehen bailarako beste ikastolekin bilera bat izan genuen hauek ere proposamena onar zezaten. Hau da, ez genuen gu geu bakarrik joan nahi, guztien inplikazioa lortzea nahi genuen, eta bailarakoek bat etorri ziren eskakizunakin.

**G.- Beraz eskakizuna baieztatzen dizue federaziotik, baina hau guztia egin ahal izateko erakundeen inplikazioa ere nahi ta nahiezkoa duzue. Zer nolako harremanak izan dituzue udaletxeekin?**

E.- Zehazki alkatearekin eduki ditugu harremanak. Iñaki ere Buitrago-n izan zen gurekin batera. Proiektu egokia iruditu zitzaion Debarako. Hori bai, ez da erraza izango lortzea, baina izan daiteke proiektu on bat. Zeren Deba benetan ezer gutzikin gelditzen ari da,

edozer ikasketa egiteko kanpora joan behar duzu. Proiektu baliagarri bat izan daiteke Debarentzat. Baina hori bai, ikusten bada antzerako ikastetxeren bat badagoela, horrekin lotura bat eman beharko zitzaion. Hau da guztien ere konpenetrazio bat egon beharko zen. Konkretuki lotura hori Artes y Oficios-ko ikastetxearekin gauzatu beharko litzateke lehendabizi.

**G.- Kilometroak 86-k helburu hori eramango du aurtengoan, baina guzti hau egin ahal izateko Debako indarrak ere murriztuak geldituko zaizkigu. Hori bai, Kilometroak motibagarri izango dira, baina proiektu hau hezur-mamitzeko beste erakunde batzuekin ere loturak beharko dituzue ezta?**

E.- Bai nahi ta nahiezkoa dugu erakundeekin loturak izatea. Euskal Jaur-laritzekin, Foru Aldundiarekin, bailarako Udaletxeekin eta batez ere Debako udaletxearekin lotura sendoak behar ditugu proiektu hau gauzatu ahal izateko.

**G.- Eta ikastetxeak? Bailarako beste ikastetxeekin ere erlazioa-tu beharko zarete?**

E.-Bailarako beste ikastolekin harreman estuak ditugu federazioaren bidez. Kilometroak antolatzeko Debako beste ikastetxeekin ere kontatu dugu. Eibarko Armeria Eskolatik ere beraien laguntza osoa eskaini digute.

Orain guzti horretatik abiatuz lehen pausoak ematen gaude. Hasten gaude beraz.

**G.- Horixe bera galdetu behar nizuen, zeintzuk dira hemendik aurrerantzean dituzuen asmoak? Irakasleak, gurasoak eta batez ere erakundeak zeregin haundi bat baiduzue hor, ezta?**

E.- Beno, orain esku artean dugun

material guzti hau aztertu beharko dugu, batez ere daukagun ideia ikusi eta osatzeko. Euskal Jaur-laritzarekin ere kontatu beharko dugu. Horrez gain FP-eko ikastetxeekin ere harremanak beharko ditugu, kooperatib- ban munduakin baita. Guzti hoi- en artean lortu dezakegu ideia sendo bat eta hori gero txosten batetan gauzatu.

Usten dugu ideia zehazterakoan guztiz zabalak izan beharko dugula.

Ideiak hainbat dira, Liceo de Artes Aplicadas bat egiteko posibilitateak ere aipatu zen, batez ere Deban mar- txan dauden aktibitateak aprobetxatuz. Hau da kontserbatorioa, judoa, antzerkia... beste zerbait ere jarri daite- ke eta horrela arratsaldetan ume hoiek joan daitezala nahi duten aktibitate- ra. Irakasleak beraien aldetik hauen ja- rraipena egingo lukete, eta horrela ez genituzke umeak arratsaldeko bostak arte hemen edukiko eta gero partiku- larrak, ingelera, judoa, musika... azke- nean umeak kargatuak bukatzen bai- dute.

Goiko eskolan ere ipini daitezke zenbait aktibitate. Hau da, goizean ikastolan derrigorrezko asgnaturak emango genituzke, eta arratsaldean haurrek erabaki dezatela gehien atse- gin zaitena. Hori bai, hemen ere erantzun bat eman beharko lukete. Proiektu hau ere guztatzen zaigu, ze- ren tailer eskolarena eta hau biak ere baliagarriak direla baderitzogu. Batak ez dio besteari kentzen!

Ederki ba, besterik gabe elkarriz- keta honelaxe bukatuko dugu. Me- troz metro kilometroa egiten bada, bileraz bilera helburua zehaztu behar- ko da, eta bihen bitartean Kilome- troak 86 izango dugu Debarrok Urriaren 12-an.

Esker milla eta beste bat arte!

*Deban, 1986ko Otsailaren 26-an.*

*Alberto Gorritebenea*

\*\*\*

# DEBAKO KILOMETROARI



laguntza guztiena  
Debako herriari  
egingo zaiona.  
Egun paregabea  
elkartzen garena  
euskararen alde  
KILOMETROarena,  
festarik ederrena  
prestatzen duguna  
ondo pasatuko da  
hona datorrena.  
Jendea ikusten da  
zirkuitora hurbiltzen  
gero eta gehiago  
giroa alaitzen  
leku guztietatik  
Debara ailegatzeko  
hasieran farrezka  
azkena dantzatzen.

Pozik ikusten dute  
gure emanaldia  
eguzkia badator  
hau dena guztia da  
gure jaialdia  
gauean inor gabe  
helduz ixilaldia:

Agerretxetik Lukasek

## «IKASTOLA GEHIAGO TA OBEAK...»

B.O. DEL PAIS VASCO - 25 de Septiembre de 1985 4595

### 2002

DECRETO 286/1985, de 17 de Septiembre, por el que se modifica la composición de Centros Públicos de Educación General Básica y Preescolar en los Territorios Históricos de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya.

La ley 10/82, de 24 de Noviembre, Básica de Normalización del uso del euskara, en su artículo 20-2, establece que será el Gobierno quien determinará las plazas o unidades docentes para las que será preceptivo el conocimiento del euskara y el Decreto 188/83, de 11 de Julio, por el que se regula el uso de las lenguas oficiales de la enseñanza no universitaria, en sus artículos octavo y noveno define los requisitos referidos a los conocimientos de euskara para acceder a las citadas plazas o unidades docentes.

Vistos los expedientes y las correspondientes propuestas e informes favorables evacuados por las Delegaciones Territoriales del Departamento en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya.

Teniendo en cuenta que de los documentos presentados se justifica la necesidad de realizar una variación en la composición actual de los Centros Públicos de Educación General Básica y Preescolar.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación y previa deliberación y aprobación en la reunión de Gobierno celebrada el día 17 de Septiembre de 1985.

#### DISPONGO:

*Artículo Unico.*- Se modifica la composición de los Centros Públicos que figuran en el Anexo al presente Decreto.

#### DISPOSICION FINAL

*Unica.*- El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial del País Vasco».

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de Septiembre de 1985.

El Presidente,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación,  
Universidades e Investigación,  
JUAN CHURRUCA ARELLANO.

Municipio: Deba  
Localidad: Iciar  
N.º de Código: 20001057  
Denominación: «Escuela Unitaria Mixta Iciar»  
Domicilio: Iciar s/n

Régimen de Provisión: Ordinario  
Supresiones: 1 ud. E.G.B. euskara  
este Centro desaparece como tal.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak bere 1985ko Irailak 25eko Dekreto honen bidez bukatzen da Itziarko Eskola Publikoaren historia.

Agian berri hau -nahiz jadanik nahiko zaharra izan- gure herriko arazotxo bat besterik ez litzateke. Edo ta... arazoa ote?...

Beharbada -eta erreakzioaren arabera, ez arrazoirik gabe- batek baino gehiagok pentsa dezake ez dela maila horretara ere iristen. Ni neuk ez dut horrela pentsatzen eta horregatik lerro hauen bidez nire iritxia aurkezten saiatuko naiz.
